



UZTAILA 20-25 JULIO 2022
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

INFORMAZIOA CHILLIDA LEKUKO TAILER ETA KONTZERTU AZ MODU EROSO ETA SEGURU BATEAN GOZATU AHAL IZATEKO

Sarbidea eta aparkalekua:

Kontzerturako sarrerek museorako, erakusketetarako, piknik gunerako eta tailerrerako sarbide-eskubidea ematen dute. Museoak 10:00etan irekiko ditu ateak. Tailerra 11:00etan hasiko da eta kontzertua 12:30tan.

Ibilgailu pribatua bazatoz, Galarretako aparkalekuan utzi beharko duzu. Doako autobus bat egongo da Galarretatik museora **10:30etatik 12:30etara**, eta ekitadia eta gero Galarretara, **14:00etatik 15:00etara** itzuliko da.

Laguntza-txakurrak:

Laguntza-txakurrak gogo onez eta inolako kosturik gabe onartzen dira (gida-txakurrak; alerta medikokoak; gorren, autisten eta mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntza-txakurrak, etab.), ahalmen urriko pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 LEGEAREN arabera.

Arropa, oinetakoak eta beste gomendio batzuk:

Gogoratu ekitaldian zehar (11:00etatik 14:00etara) tenperaturak gora egin dezakeela eta beraz, museoko zelaietan txapela, eguzkitako krema eta oinetako erosoak eramatea gomendatzen dizugu.

Era berean, manta edo estera bat ekartzea gomendatzen dizugu, eroso-eroso goza dezazun kontzertuaz; gainera, hamaka kopuru mugatu bat egongo da bertaratzen direnentzat, eskuragarri iriste-ordenaren arabera.

Zure zain gaude Chillida Lekun oso egun berezi batez gozatzeko.

Edozein zalantza edo kontsulta baldin baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan:

reservas@museochillidaleku.com / infojazz@donostia.eus

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus

